



**ERABAKIA, UPV/EHUko IRAKASLE-IKERTZAILEEN ERREKTOREORDEARENA, FUNTZIONARIOEN ETA LAN KONTRATUKO IRAKASLEEN ETA IKERTZAILEEN (IRI) ERRETIRORAKO NEURRI BEREZIAK ESKATZEKO PROZEDURA EZARTZEN DUENA.**

2024ko ekainaren 11n, UPV/EHUren Gobernu Kontseiluak berretsi egin zituen UPV/EHUko irakasle-ikertzaile funtzionarioen Negoziazio Mahaiaren eta UPV/EHUko irakasle-ikertzaile kontratudunen Negoziazio Mahaiaren 2024ko ekainaren 10eko akordioak, bi-biak irakasle-ikertzaile horiek erretiroa hartzeko neurri bereziei buruzkoak.

Gobernu Kontseiluak 2025eko urriaren 9an berretsi zuen Euskal Herriko Unibertsitatearen zerbitzura dagoen lan kontratudun pertsonalarentzako erretiro partzialerako plana, 2026ko urtarrilaren 1etik 2029ko abenduaren 31ra bitartekoa.

Bi akordio horien printzipio nagusi bat da guztiz errespetatzea indarrean dagoen arautegia, aplikatu beharreko araubide juridikoetan, eta akordioen ondorioz hartutako neurriek tratamendu ahalik eta berdinzaleena ematea UPV/EHUUn diharduten enplegatu publikoen kolektibo guztiei.

Akordioen bigarren atalean aipatzen da irakasle-ikertzaileen irakats ahalmena murrizteko aukera, langileak ohiko erretiroa hartu aurreko lau ikasturteetan, halako moldez, non murrizketa hori hartzen duten langileek konpromisoa hartzen duten erretiroa hartzeko ikasturteko urtarrilaren 31n edo abuztuaren 31n, betiere betetzen badira Gizarte Segurantzak edo, hala badagokio, Klase Pasiboen araubideak horretarako ezarritako gutxieneko baldintzak.

Gainera, akordioetan ezarritako betekizun eta baldintzez gain, aurreikusten dira beste neurri batzuk, horietako batzuk bateragarriak irakats ahalmena murriztearekin: hala nola genero arrakalarekin lotutako baimen berezia eta ordaindu gabeko eszedentzia, gehienez 6 hilabetekoa, edo, irakasle-ikertzaile lan kontratudunen kasuan, txanda kontratu bidezko erretiro partziala. Halaber, irakats ahalmena murriztearekin bateragarriak ez diren beste neurri batzuk; adibidez, ordaindutako baimena.

Negoziazio-denboren ondorioz aurreko deialdia egin ez denez, ezohiko moduan, aldeztu aurretik baliatu ez diren irakaskuntza-murrizketak metatuko direla bermatzen da, gehienez ere urteko % 25eraino, murrizketa-programaren urtearen arabera (1,5 kreditu lehen urtean, 3 kreditu bigarrenetan, 4,5 hirugarrenetan eta 6 kreditu azkenekoan).

Publikotasunik ahalik eta handiena emateko neurri hauei eta aurkeztutako eskabideak izapidetzeko, prozedura bat ezari behar da irakasle-ikertzaileek eskubide hauek eskuratzeko baldintzak, eskakizunak eta epeak arautzeko.

Horregatik guztiagatik, UPV/EHUko errektorearen 2025eko urtarrilaren 30eko erabaki bidez eskuordetutako eskumenen arabera (2025eko otsailaren 19ko EHAA), honako erabaki hau ematen dut aipatutakoak eskatzeko prozeduraren arautzeko:



1. IRI funtzionario eta lan kontratudunen irakats ahalmena murriztea, erretiroa hartzeko konpromisoarekin.
2. Erretiro partziala txanda kontratuarekin batera.
3. Ordaindutako baimena eta/edo eszedentzia, jarraiki erretiroa hartu aurreko aldian hartu beharrekoa.
4. Genero arrakalari lotutako baimen berezia.

Erretiroen Batzorde Teknikoaren aurreko akordioen arabera emandako neurriren bati atxikita dauden pertsonen jarraituko dute neurri horiek baliatzen, kasuan kasuko akordioetan ezarritako baldintzetan. Hala ere, akordio berri honetan jasotako neurriren bat hautatu nahi badute eta gertaera eragilea, erretiroa alegia, gertatu ez den bitartean, egin beharreko erregularizazioa egin ahal izango da.

## **1. UPV/EHUko IRAKASLE ETA IKERTZAILEEN IRAKATS AHALMENA MURRIZTEA, FUNTZIONARIOENA ZEIN LAN KONTRATUDUNARENA**

### 1.1. Xedea eta pertsonal eremua.

Deialdi honetan eskaera egin dezakete, horretarako baldintzak beterik, irakats ahalmena murriztu nahi duten irakasle-ikertzaileek, 2026, 2027, 2028 eta 2029. Urteetako urtarrilaren 31n edo abuztuaren 31n behin betiko erretiroa edo 2029. urteko abuztuaren 31n erretiro partziala hartzeko konpromisoa hartuta, 2025/2026 ikasturteko bigarren lauhilekotik hasita.

### 1.2. Betebeharrak eta baldintzak.

#### 1.2.1. Baldintzak

Irakats ahalmena murrizteko deialdira aurkezteko, negoziazio mahaiaren akordioaren bigarren ataleko a) letran ezarritako araubidea aplikatuz:

- Unibertsitateko irakasle kategoriaren bateko karrerako funtzionario edo lan kontratudun finkoa izatea, UPV/EHU behin betiko lanpostua izatea zerbitzu aktiboko administrazio egoeran (edo lanpostua gordetzea dakarren beste edozeinetan) edo egonkorra edota plaza hutsa betetzen dagoen bitartekoa izatea, arduraldi osoan, 6 urteko antzintasuna izanik UPV/EHU benetako zerbitzuan (5 urte, genero indarkeriaren, kontziliazioagatiko eszedentziaren edo kontziliazioagatiko lizentziaren kasuan, zerbitzu aktiboko urteak gutxienez urtebete murriztu badira).
- Konpromisoa hartzea erretiroa hartzeko ikasturteko urtarrilaren edo abuztuaren 31n, betiere betetzen badira Klase Pasiboen araubideak edo, hala badagokio, Gizarte Segurantzaren araubide orokorrak horretarako ezarritako gutxieneko baldintzak.
- 60-67 urte izatea erretiroa hartzeko unean.



### 1.2.2. Baldintzak.

Murrizketa baliatuko da soil-soilik ohiko erretiro egunaren aurreko 4 urteetan.

Irakats ahalmena murrizt daiteke Jardun plana edo hura ordeztan duen sistema aplikatu aurretik, eskala honen arabera:

<b>Ikasturtea eta murrizketa ehunekoa</b>	
Erretiroa hartzeko ikasturtea ken 3 urte	% 12,5 (tutoretzako 1 ordu/aste)
Erretiroa hartzeko ikasturtea ken 2 urte	% 25 (2 ordu/aste tutoretza)
Erretiroa hartzeko ikasturtearen aurrekoa	% 37,5 (2 ordu/aste tutoretza)
Erretiroa hartzeko ikasturtea	% 50 (3 ordu/aste tutoretza)

Sailen irakaslanaren urte anitzeko plangintzaren barruan, murrizketak metatu ahal izango dira erretiroa hartu aurreko aldiaren amaieran, ikerketa eta kudeaketa ahalmenak mantenduta.

### 1.2.3. Konpromisoak:

Irakats ahalmena murrizteak berekin dakar irakasle-ikertzailearen konpromisoa hartzea erretiroa hartzeko bere eskaeran adierazitako egunean; hau da, lehenengo lauhilekoa (urtarrilaren 31) edo adierazitako ikasturtea (abuztuaren 31) amaitzean.

Aurreko paragrafoan aipatutako konpromisoa arrazoi justifikaturik gabe betetzen ez bada, irakasle-ikertzaileak itzuli egin beharko ditu hartutako murrizketa orduak, eta ordaindu konpromisoa ez betetzeak unibertsitateari eragindako kalte-galerak.

## **2. ERRETIRO PARTZIALA TXANDA KONTRATUAREN BIDEZ ESKURATZEA**

Ondoren aipatutako baldintzak betetzen dituzten irakasle-ikertzaile lan kontratudunek erretiro partziala eskatu ahal izango dute txanda kontratuaren bidez, Gizarte Segurantzak ezarritako baldintzetan.

Erretiro mota hau hartzen duten langileek aldi baterako kontratu partzial bat izenpetuko dute, % 25eko lanaldikoa, eskaera egiten deneko urteko lanaldi osoa erreferentziazat hartuta, baldin eta ohiko erretirorako datatik bi urtetara baino lehenago gertatzen bada. Erretiro partziala ohiko erretirotik 2 urte baino gehiagotara gertatzen bada, hasierako kontratua % 67koa izango da, eta % 25era igaroko da erretiro horretarako bi urte falta direnean.

Kontratu hori txanda hartzaile baten txanda kontratu bati lotuko zaio.

Lanaldi partzialeko kontratuak ohiko erretiro adinera iritsi arte iraungo du, Gizarte



Segurantzaren Lege Orokorraren 205.1 a) artikuluan ezarritakoa, Zazpigarren Xedapen Iragankorrean ohiko erretiroaren inguruan ezarritakoari dagokionez (Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak jaso moduan).

Aurreko ataleko murrizketak bateragarriak dira erretiro partzialarekin.

Erretiro partzialagatiko murrizketak metatu ahal izango dira, interesdunak hala nahi badu, aldiaren azken zatian. Beraz, bi dira oinarrizko aukerak, metaketarekin eta metaketarik gabe.

### 2.1. Ordainsariak.

Oro har, erretiro partziala hartuko duen pertsonalak aukeratutako zerbitzu prestazioaren modalitatea gorabehera (metaketarekin edo gabe), administrazioak lanaldiaren %67ari dagozkion ordainsariak ordainduko ditu, lanaldi partzialeko kontratuaren indarraldiaren lehenengo aldian eta %25ekoak ohiko erretiroa hartzeko bi urte geratzen denetik aurrera.

Era berean, administrazioak alta emanda izango du langilea Gizarte Segurantzaren erretiro osoa hartu arte.

Lanaldi partzialeko kontratuari dagozkion ordainsariak bateragarriak izango dira Gizarte Segurantzaren araudiak erretiro partzialagatiko pentsio gisa ordezkatuai aitortzen dien pentsioarekin.

### 2.2. Erretiro partziala hartzeko eskaria

Langileak Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalean egingo ditu erretiro pentsioaren eskaera eta gainerako izapideak. Gainera, erakunde horretara jo ahal izango du erretiro partzialeko pentsioari buruzko edozein zalantza argitzera (pentsioa aitortzea, zenbatekoa edo iraungitzea).

## 3. ORDAINDUTAKO BAIMENA ETA ESZEDENTZIA

Irakaslan ondo planifikatzeko, erretiroa hartu nahi deneko data eta lauhilekoaren edo ikasturtearen amaiera data bat etorriko ez balira, ordaindutako baimen bat edo eszedentzia bat eskatu ahal izango da, baldintza batzuk beteta, soldatarik gabe baina Gizarte Segurantzari kotizaturik.

### 3.1. Baldintzak.

Baldintzak betetzen dituzten irakasle-ikertzaileek:

- Ordaindutako baimena hartu ahal izango dute, gehienez ere 6 hilabetekoa, erretiro dataren edo erretiro aurreko eszedentziaren aurreko aldian. Ordaindutako baimena **ez** da bateragarria izango irakats ahalmenaren murrizketekin.
- Gainera, eszedentzia hartu ahal izango dute, gehienez ere 6 hilabetekoa, erretiro dataren aurreko aldian. Eszedentzia **bateragarria** izango da irakats ahalmenaren murrizketekin. Eszedentzia erabili ahal izango da erretiro data bereizteko ikasturtearen amaieratik edo lehenengo lauhilekoaren amaieratik, aurreko irakats murrizketak egokituta egutegi akademikora (urtarrilaren 31 edo abuztuaren 31).



#### **4. GENERO ARRAKALARI LOTUTAKO BAIMEN BEREZIA HARTZEKO ESKARIA**

UPV/EHUn egindako lan bizitzaren barruan, adingabeak edo mendeko pertsonak zaintzeko eszedentzia, baimena edo lanaldi murriztua hartu duten irakasle-ikertzaileek baimen berezia eskatu ahal izango dute erretiroa (edo baimena eta/edo eszedentzia) hartu aurretik, soldata osoarekin:

- Adingabeak edo mendeko pertsonak zaintzeko eszedentzien kasuan, baimen berezia izango da hilabetekoa eszedentzia urte bakoitzeko; gehienez ere 3 hilabetekoa.
- Lanaldi murrizketetan, urteen arabera baliokidea kalkulatu da, eta baimen berezia izango da hilabetekoa kalkulatik ateratako urte bakoitzeko; gehienez ere 3 hilabetekoa.

Baimen bereziaren bi modalitateak metagarriak dira.

Modalitate biak bateragarriak dira irakats ahalmenaren murrizketarekin, bai eta ordaindutako baimenarekin eta txanda kontratuarekin ere.

#### **5. IRAKASLEEN IRAKATS AHALMENA MURRIZTEKO, BAIMENAK ETA/EDO ERRETIROA HARTU AURREKO ESZEDENTZIA ESKATZEKO PROZEDURA**

Aurreko puntuetako baldintzak bete eta erretirorako neurri bereziei heldu nahi dieten irakasle-ikertzaileek eskaera aurkeztu ahal izango dute deialdi honetan, erretiro-konpromisoarekin.

5.1 Eskaerak egiteko epea:

Eskaerak egiteko epea deialdi hau argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da eta **2025eko azaroaren 4an** bukatu.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Deialdi honetan parte hartu nahi duten irakasle-ikertzaileek egin beharreko eskaera aurkeztu beharko dute, deialdiari atxikitako eredu normalizatuan (I. eranskina).

5.2 Dokumentu osagarriak:

- Lan bizitzaren txostena.
- Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren ziurtagiria, langileak erretiro partziala edo behin betikoa (aurreratua edo ohikoa) hartzeko baldintzak zein adinetan betetzen dituen egiaztatzen duena.

Ez da beharrezkoa izango dokumentazio hori aurkeztea Erretiroen Batzorde Teknikoaren aurreko akordioaren arabera emandako neurriak egokitze eskaeretan.



### 5.3 Eskariak aurkezteko era

Eskariak UPV/EHUren erregistro elektronikorokor aurkeztu beharko dira, aintzat hartuta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.e artikuluan xedarritakoa, bai eta UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakian ere, zeinaren bidez onartzen baita UPV/EHUrekin dituzten harreman elektronikoen interesa duten pertsonen eta bertan egiten duten langileen identifikazio eta sinadura elektronikoa buruzko instrukzioa.

Horretarako, baliatu ahal izango dira UPV/EHUko langilearen ziurtagiri elektronikoa, Izenperen Erabilgarririk Ziurtagiri Digitala, NAN elektronikoa edo Diruaren eta Zerga Ziguilaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiria (FNMT-CERES). Eskabide horri 5.2 epigrafean adierazitako dokumentuak erantsi beharko zaizkio.

Gainera, eskaera aurkeztu ahal izango da ere sektore publikoko beste edozein erakunderen erregistro elektronikoa eta, ohiz kanpoko kasuetan, erregistro gaitan laguntzeko UPV/EHUren bulegoetan, aurrez aurre. Erregistro gaitan laguntzeko UPV/EHUren bulegoetan aurkeztutako eskaerak eta dokumentuak digitalizatu egingo dira administrazio espediente elektronikoa sartzeko, eta jatorrizkoak itzuliko zaizkio interesdunari, interesduna funtzionarioaren aurrean identifikatu eta horrela jarduteko berariazko adostasuna adierazi ondoren, aintzat harturik UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakian adierazitakoa, zeinaren bidez onartzen baitira gai hauei buruzko jarraibideak: erregistro gaitan laguntzeko bulegoak; eskaerak, idatziak edo bestelako komunikazioak funtzionario publiko gaituaren bidez aurkeztea UPV/EHU; eta funtzionario publiko gaituen erregistroa.

## **6. AURREKONTU ERABILGARRITASUNA**

Eskaerak onartzeko baldintza izango da une horretan aurrekontu baliabideak egotea, behar bezala egiaztatuta beharko direnak.

## **7. ERREKURTZOAK**

Administrazio bidea amaitzen duen erabaki honen aurka jarri ahal izango da aukerako berraztertze errekurtsua, hilabeteko epean, Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordearen aurrean, edo zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsua, dagokion Epaitegian, bi hilabeteko epean, kontatzen hasita argitaratu eta hurrengo egunetik.

Efren Areskurrinaga Mirandona  
IRAKASLE-IKERTZAILEEN ERREKTOREORDEA

Errektoreak eskuordetuta, 2025eko urtarrilaren 30eko Ebazpenaren bidez (2025eko otsailaren 19ko EHAA)